Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

2017KO JARDUERAREN BALANTZEA OSAKIDETZAN

Osakidetzako ospitaleko larrialdiek, 2017, 940.000 pertsona inguru artatu zituzten; horietako %65 patologia oso arinekin, edo arinekin

JARDUERAREN LABURPENA

- ✓ Lehen Mailako Arretan, 11.648.197 kontsulta medikoa artatu ziren, aurreko urtearen antzera. Horietatik %22,3 telefono bidezko kontsultak izan ziren.

- ✓ Kuantitatiboki jarduera egonkorra da, baina nabarmentzekoa da kualitatiboki bat-bateko, programatutako, premiazko eta etxeko kontsulten arretaz gain, paziente kronikoaren eta pluripatologikoaren jarraipena, paziente aktiboa, haurraren arreta, txertaketa, arrisku kardiobaskularreko prebentzioa (tentsio arteriala, diabetesa, obesitatea eta tabakoaren kontrola) eta horrelakoak, esku-hartze komunitarioa (lana elkarteekin, udalekin eta osasun publikoarekin) eta baita koordinazio sozio-sanitarioko jarduerak ere barne hartzen dituela.

- ✓ Osakidetzak, 2017. urtean, 2016an baino 4.305 interbentzio kirurgiko gehiago egin ditu. Guztira 127.096 interbentzio kirurgiko programatu egin zituen; horietatik %60 ingresurik gabekoak izan ziren. Horrek esan nahi du 76.258 ebakuntza kirurgikoen kasuan pazienteak egunean bertan bere etxera itzultzeko aukera izan zuela.

- ✓ Itxaron-zerrenda kirurgikoaren kasuan, paziente-kopurua aurreko urtekoaren antzekoa da, 17.281 pazienteen aldean, nolabaiteko batez besteko atzerapen laburragoarekin: 49,6 egunekoa.

- ✓ Lehen Mailako Arretako eta Ospitaleko Arretako profesionalen arteko kontsulta ez presentzialak, mailen arteko koordinazioaren eredu eta ESIetako integrazioen isla direnak, %15,5 handitu dira 2016. urtearekin alderatuta. Guztira 95.904 kontsulta arteko egin dira; horiek Lehen Mailako Arretako jarduera bultzatzen dute, pazienteari erantzun azkarrago bat ematen diote eta ospitaleetara joan beharra ekiditen dute.
- ✓ Telefono bidezko kontsultak Lehen Mailako Arretan eginiko kontsulten %23,3 izan dira, 2,8 milioi kontsulta baino gehiagorekin.
  Ospitaleko Arretan kontsultak %13,4 handitu dira, 2016. urtearekin alderatuta.

- ✓ Ospitaleko Larrialdiek milioi bat pertsona inguru artatu zituzten; horietatik 600.000 baino gehiago patologia arina eta oso arinak ziren eta horietako batzuk, gutxienez,Lehen Mailako Arretako Etengabeko Arretako Guneetan artatu ahal ziren.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 94 – Fax 945 01 93 02 – E-mail: gabinete1-san@ej-gv.es

- ✓ Etengabeko Arretako Guneek (EAG) 941.767 pertsona artatu zituzten kontsulta medikoetan eta erizaintzako kontsultetan.

- ✓ Bizi-itxaropena handitzea gizartearen konkista bat da eta horrek, osasunaren alorrean, inplikatzen du, urtero, 80 eta 90 urtetik gora dituzten pertsonen ebakuntza-kopurua handitzea; zehazki, 2017an, 85 urte baino gehiago dituzten pertsonei egindako ebakuntzak 11.252 izan dira.

- ✓ Etxeko ospitalizazioaren bidez, Osakidetzak 12.224 paziente artatu ditu haien etxeetan. Jarduera hori 445 oheko ospitale batean egindakoaren parekoa da. Aurten, patologia kronikoa duten pazienteen (%23), aringarrietako pazienteen (%23) eta onkologikoen (%7) jarraipen handia nabarmendu behar da.

- ✓ Emergentzietan, 409.335 deiekin, esan daiteke ia minuturo dei bati erantzun diotela Osakidetzako Emergentzietan. Helikopteroak batez beste egunero irteera bat baino gehiago egiten du; 2017an 381 irteera egin zituen.

- ✓ Osakidetzak lidergoa mantentzen du populazio-programetan eta transplanteetan, herritarren eta profesionalen konpromisoari esker.

- ✓ Koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, 2017an, arrisku handiko 2.228 adenoma eta 237 minbizi inbaditzaile detektatu ditu.

- ✓ Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, 2017an, 617 bularreko minbizi detektatu ditu.

- ✓ Haurren hortzak zaintzeko programa (PADI). Euskadik 1988an abiarazi zuen programa hau eta orduan euskal haurren %82k txantxarrak zituzten; egun, datu hori %26koa da.

- ✓ Transplanteen Programari dagokionez, nabarmendu behar dugu Euskadiko organo-emateen tasa milioi bat biztanleko 70,3 emailekoa da. Espainiako batez bestekoa baina kopuru handiagoa (milioi bat biztanleko 46,9 emailekoa). eta munduko altuenetarikoa da.

- ✓ Arretaren jarraitutasunaren konpromisoaren barruan, osagarri gisa, Osakidetzak arreta ez presentzialaren alde eta teknologia berrien alde egiten jarraitzen du (adibidez, Osarean-ekin).

- ✓ Osasun Aholkuaren bitartez, 91.362 kontsulta egin dira paziente kronikoen jarraipena egiteko.

- ✓ Etxean pazienteak telemonitorizatzeko programak 10.000 paziente ditu kontrolatuta sei programa ezberdinen bidez.

- ✓ Web bidezko zita zerbitzuari dagokionez, 2017an, herritarrek ia BI MILIOI zita eskatu dituzte webaren bitartez.

- ✓ Osasun-karpetak, aurten funtzionaltasunak handitu dituenak, bikoiztu ditu sarrerak eta ia 400.000 sarreretara iritsi da.

Maria Jesús Múgica Osakidetzako zuzendari nagusiaren hitzetan, “aurrera egiten jarraitzen dugu integrazioan eta zainketen jarraitutasunean, eta aldaketa demografikoen arabera moldatzen goaz, gero eta pertsona gehiagok eskatzen duelako ebakuntza kirurgikoa eta gero eta adineko gehiago dagoelako eta teknologia berriak sartzen ari gara”.

Maria Jesús Múgicak esan duen bezala, “Osakidetza aurrerantza doa, triunfalismotan erori gabe, jakina, euskal osasun publikoarekin dugun konpromisoagatik egiten dugulako, eta profesionalen euren konpromisoari eta lanari esker. Aldi berean, herritarren konpromisoa ere bilatu behar dugu, bai beren osasuna zaindu dezaten eta ohitura osasuntsuak har ditzaten, bai eta baliabide sanitarioak erabiltzean arduratsuak eta erantzukideak ere izan daitezen”.

LEHEN MAILAKO ARRETA

2017. urtean, oro har, Lehen Mailako Arretako **jarduera mantendu da,** bai familia-medikuntzako kontsultetan, bai erizaintzako kontsultetan ere, aldaketa txiki batekin pediatrian. Arreta-denborak 10 minutuen inguruan mantentzen dira.

Zenbakietan laburbilduta aurkezten dugun jarduera asistentzial hori, bat-bateko, programatutako, premiazko eta etxeko **kontsulta bidezko eguneroko eskari asistentzialaz gain**, osasun-zentroetan garatzen diren programa guztiak hartzen ditu barne: hala nola, **paziente kronikoa, paziente pluripatologikoa, paziente aktiboa, haurren arreta, txertaketa, arrisku kardiobaskularreko prebentzioa** (tentsio arteriala, diabetesa, obesitatea eta tabakoaren kontrola), **baheketa-programak,** eta baita **esku-hartze komunitarioa** (lana elkarteekin, udalekin, ikastetxeekin eta osasun publikoarekin bizi-ohitura osasungarrien sustapenean) ere.
Era berean, oinarrian lan egiten duten gizarte langileen eta hainbat erakunderen arteko **koordinazio soziosanitarioa** nabarmendu behar da, osasun-arazoak eta arazo sozialak elkarrekin lantzeko.

Egondako **kontsulta mediko guztiei** dagokienez, iazko epealdi berean egondakoak izan direla esan dezakegu; **11.648.197 kontsulta egin dira; horietatik %22,3 telefono bidezko kontsultak izan dira.**

Erizaintzaren esparruan, 2017an, **3.684.421** kontsulta egin dira, 2016ko epe beraren antzera, modalitate hauetan: kontsultak osasun-zentroan, etxean, erizaintzako prozedurak eta teknikak.

	2016	2017	%
Familia Medikuntza/ Medicina de Familia	9.830.341	9.916.018	0,9
Pediatria	1.787.806	1.732.179	-3,1
Kontsultak, guztira/ Total consultas médicas	11.618.147	11.648.197	%0,3
Erizaintza/ Enfermería	3.712.608	3.684.421	-0,8

2017	arreta minutuak/ minutos de atención
Familia Medikuntza/ Medicina de Familia	9,5
Pediatria	10,2

OSPITALEKO ARRETA

Kontsultak

Ospitale esparruan **4.385.445** kontsulta egon dira; **%3 handitu dira**, beraz, eta, berriz ere, aipatu behar dugu Lehen Mailako Arretaren eta Ospitaleko Arretaren arteko **kontsulta arteko ez presentzialak %15,5 handitu direla,** mailen arteko koordinazioaren eredu dena eta 2016an Osakidetzan amaitutako ESIen antolaketa-egituran integratuta daudenaren isla dena. Kontsulta modalitate hau gehien erabiltzen duten espezialitateak **Kardiologia eta Digestio-aparatua** dira (kontsulta artekoen guztizkoaren %18 haiena da) eta haien atzetik, **Dermatologia.**

Kontsulta horiek **Lehen Mailako Arretako jarduera sustatzen dute;** kontsultoreak dira, **pazienteari erantzun azkarrago bat ematen diote eta** pazienteak ospitaleetara joatea saihesten dute, irisgarritasuna hobetuz, bi mailek modu koordinatuan lan egiten baitute.

Ospitaleko Arretako telefono bidezko kontsultei dagokienez, 2017an, modalitate honetako **258.167** kontsulta egon dira; hots, iazko kopuruaren aldean, **%13,4 handitu dira**.

Kontsultak	2016	2017	%
K. Presentzialak/ C. Presenciales (AP-AH)	1.061.373	1.075.831	%1,4
K. Ez presentzialak/ C. No presenciales (AP-AH)	83.034	95.904	%15,5
Lehenengoak/ Primeras Consultas	**1.144.407**	**1.171.735**	**%2,4**
Hurrengoak/ Consultas Sucesivas	3.112.600	3.213.710	%3,2
Kontsultak, guztira/ Total consultas	**4.257.007**	**4.385.445**	**%3,0**

TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK

Telefono bidezko kontsultak gero eta gehiago erabiltzen dira arreta sanitarioan; 2017an **2.860.500 telefono bidezko kontsulta egin dira** guztira, 2016ko epealdi berean baino %**4,8** gehiago.

Herritarrek oso ondo baloratzen dute telefono bidezko kontsulten bidez jasotako arreta, osasun-sistemarako irisgarritasuna erraztu eta pazienteak joan eta etortzea saihesten baitute, profesional sanitarioek pertsonalki artatzen baitituzte Osasun-zentrora joan behar izan gabe. **Lehen Mailako Arretan, pazienteek eurek eska ditzakete telefono bidezko kontsultak** osasun-zentroan bertan, telefonoz eta baita Internetez ere, Osakidetzako Web zitaren bidez, alegia.

Beste baliabide bat da, gero eta gehiago erabiltzen dena, eta ongi erabili behar duguna bere erabilgarritasuna eta eraginkortasuna mantentzeko.

Ospitaleko arretaren kasuan, **langile sanitarioak dira** haien pazienteei **telefono bidezko kontsultak gomendatzen dizkietenak** haien patologia kronikoen jarraipena egiteko; aurten, asko handitu dira: **%13,4.**

Telefono bidezko kontsultak/ Consultas telefónicas	2016	2017	%
Familia Medikuntza/ Medicina de Familia	2.215.800	2.304.315	%4,0
Pediatria	286.016	298.018	%4,2
1. Mailako Arretako kontsultak, guztira/ Total consultas Atención Primaria	**2.501.816**	**2.602.333**	**%4,0**
Ospitaleko Arreta/ Atención Hospitalaria	227.738	258.167	%13,4
Kontsultak, guztira/ Total consultas	**2.729.554**	**2.860.500**	**%4,8**

Gaur egun, Lehen Mailako Arretan, egiten diren familia-medikuntzako kontsulten **%23,4** telefono bidezkoak dira; aldiz, pediatrian, ehunekoa **%17,2**koa da.

OSPITALEKO ARRETAKO ADIERAZLEAK

Ospitalizazioko alten kopurua egonkor mantentzen da, %0,7ko igoera txikiarekin.

2017an **940.041 ospitaleko larrialdi** artatu dira. **Iazko kopuruen aldean pixka bat igo dira, zehazki %0,4, larrialdi arin eta oso arinen ondorioz; horiek bakarrik 618.011 izan baitira.** Ingresatutako larrialdien ehunekoa %13,57an mantentzen da.

Ospitaleko Jarduera/ Actividad Hospitalaria	2016	2017	%
Ospitalizazioko Altak/ Altas Hospitalización	250.463	252.158	%0,7
IK Handi Programatua/ IQ Mayor Programada	122.791	127.096	%3,5
Larrialdiak/ Urgencias	936.451	940.041	%0,4

Aurreko urteko epealdi bereko datuei dagokienez, ospitaleko larrialdi zerbitzuetara doazen pazienteen **sailkapena** mantentzen da. **Arinak eta oso arinak kategoriarekin** sailkatutako larrialdiak **artatutako larrialdi guztien %65 izan dira aurten ere.** Horietako paziente batzuk, gutxienez, EAGetan artatu izan balira, larrialdietan itxaron-denbora laburragoa izango zen eta baliabide sanitarioak hobeto erabiliko ziren.

Etengabeko Arretako Guneak ospitaleko izaera ez duten zentroak dira, Osakidetzak herritarren eskura jartzen dituena osasun-zentroko arreta-ordutegitik kanpo edo jaiegun batean premiazko arreta eskaintzeko.

EAG horietara joan daiteke bizitza arriskua jartzen ez duen larrialdi baten kasuan. Profesional taldea familiako medikuek, erizaintzako langileek eta administrariek osatzen dute, eta gaixo akutu eta kronikoei ematen diete arreta, osasun-beharren arabera.

Gogoan izan beste inora baino lehen zerbitzu honetara joan behar dugula, bizitza arriskuan jartzen ez duen premiazko osasun–beharra baldin badugu.

Eskura ditugun zerbitzuak ongi erabiliz lortuko dugu pazienteen arreta hobea izatea.

2017. urtean EAGetan egondako jarduera aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da eta **guztira 587.267 kontsulta mediko eta 354.500 erizaintzako kontsulta egon dira.**



EAG/PAC	2016	2017	%
Kontsulta mediko kop./ Nº Consultas Médicas	588.428	587.267	%-0,2
Erizaintzako kontsulta kop./ Nº Consultas Enfermería	357.747	354.500	%-0,9
GUZTIRA/TOTAL	946.175	941.767	%-0,5

Jarduera Kirurgia Handian

2017an egindako interbentzio kirurgiko programatuen guztirako datua 4.305 interbentziotan handitu da 2016. urtearen aldean; hau da, %3,5 gehiago. **Jarduera-handitze hori dela-eta mantendu egin da itxaron-zerrendan dauden pazienteen kopurua eta itxaron-denbora,** faktore demografikoengatik eta teknologikoengatik; izan ere, interbentzio kirurgiko bat eskatzen duen pertsona-kopurua handitu egin da. Faktore hauek dira, alde batetik, gure biztanleriaren zahartzea eta, bestetik, adinaren ondorioz dauden kontraindikazio kirurgikoak murrizten dituzten kirurgia eta anestesia tekniketako hobekuntza.

Kirurgia handi programatuan ebakuntza izan duten paziente guztietatik **%60k alta jaso du egunean bertan (Kirurgia Handi Anbulatorioa).**

Taula batean islatu dugu 2017an ebakuntza egin zaien adin nagusienekoen pertsona kopurua eta baita guztizkoan suposatzen duten ehunekoa ere (IK programatuak eta premiazko IK). Urtero **handitu egiten da 65 urte baino gehiago dituzten eta ebakuntza egiten zaien (operatutako pertsonen %50 inguru) pertsonen kopurua, bai eta 85 urte baino gehiago dituztenen artean ere. Hain zuzen ere, azken talde horretan ebakuntza egin dioten pazienteen kopurua 11. 000** pertsona baino gehiagokoa da.

IK Kirurgia Handi Programatua/ I.Q. Cirugía Mayor Programada	2016	2017	%
IK Kirurgia Handi Programatua/ I.Q. Cirugía Mayor Programada	122.791	127.096	%3,5
Kirurgia Handi Anbulatorioaren %/ % Cirugía Mayor Ambulatoria	%61,9	%59,7	

	55-64 urte/ años	65-74 urte/ años	75-84 urte/ años	85-94 urte/ años	>94 urte/ años
Pertsona-kop./ Nº de personas	23.525	32.561	29.948	10.822	430
%	%15,8	%21,9	%20,2	%7,3	%0,28

Jarduera Ospitalizazioaren alternatibetan (Ospitale Birtualaren jarduera)

Osakidetzak "ohiko ospitalizazioaren alternatibak**"** izenekoak **indartzen jarraitzen du, eraginkortasun-adierazle onak eta,** pazienteen aldetik, **balorazio-indize altuak** izaten jarraitzen baitute.

Kirurgia Handi Anbulatorioak kirurgia handi programatu guztiaren **%60ren ingurukoa izaten** jarraitzen du, **Eguneko Ospitale Medikoko prozeduren zifrek** aurreko urteko zifren antzekoak izaten jarraitzen dute, eta pixka bat murriztu dira **Etxeko Ospitalizazioko ingresuak.**

Alternatibak Ospitalizazioari/ Alternativas a la Hospitalización	2016	2017	%
Etxeko Ospitalizazioa, Ingresuak/ Ingresos Hosp. a Domicilio	12.503	12.224	%-2,2
Kirurgia Handi Anbulatorioa/ Cirugía Mayor Ambulatoria	75.605	75.866	%0,3
Eguneko Ospitale Medikoa, Prozedurak/ Procedimientos H. Día Médico	319.095	317.597	%-0,5

Ospitalizazioarekin, Osasun Aholkuarekin eta Lehen Mailako Arretarekin zuzeneko koordinazioa duen **Etxeko Ospitalizazioak pazienteak modu globalean** jarraitzeko aukera eskaintzen du. Etxean artatzen dituzten pazienteen kopurua **445 oheko ospitale bat izatearen parekoa da.**

2017an, **patologia kronikoa duten pazienteen (%23), aringarrietako pazienteen (%23) eta onkologikoen (%23)** jarraipen handia nabarmendu behar da.

Etxeko ospitalizazioaren barne, paziente akutuen (%25) eta kirurgikoen (%18) arretaren jarraitutasuna ere sartzen da.

Eguneko Ospitale Medikoaren jarduera nagusiak hauek dira: Kimioterapiak, Hemodialisia, Digestio-aparatuko endoskopiak eta Odol-ateratzeak eta transfusioak.

Alternatibak Ospitalizazioari
Alternativas a la Hospitalización
2017

Etxeko ospitalizazioa, ingresuak/ Ingresos Hosp. a Domicilio	12.224

Talde patologikoak / Grupos patológicos	2016	2017
Patologia akutua/Patología aguda	3.478	3.374
Patologia kronikoa/Patología crónica	3.041	2.809
Aringarrietako pazienteak/Paliativos	2.531	2.847
Paziente kirurgikoak/Quirúrgicos	2.098	2.023
Paziente onkologikoak/Oncológicos	948	801
Transplantatuak/Trasplantados	108	94
Besteak/Otros	299	276

Osakidetza

Eguneko Ospitale Medikoa, Prozedurak
Procedimientos Hospital Día Médico
2017

Eguneko Ospitale Medikoa, Prozedurak/ Procedimientos H. Día Médico	2016	2017
Hemodialisia	55.035	48.031
Kimioterapia	70.746	70.299
Endoskopiak	24.834	25.716
Odol-ateratzeak/ Extracciones de sangre	21.341	21.378
Transfusioak/Transfusiones	5.280	5.590
Beste prozedura batzuk/ Otros procedimientos	141.859	146.583
GUZTIRA/TOTAL	319.095	317.597

Osakidetza

OSPITALEETAKO ITXARON ZERRENDAK

2017. urtean, Osakidetzako **Itxaron-zerrenda kirurgikoaren batez besteko atzerapena bere horretan mantendu dela ikusten da: 49,6 egunekoa izaten jarraitzen du**, nahiz eta indikazio kirurgikoak gora egin duen, interbentzio kirurgiko bat eskatzen duten pertsonen kopurua handitzen joatea dakartzaten faktore demografikoak eta teknologikoak daudelako; alde batetik, populazioaren zahartzea dugu eta, bestetik, adinarekin lotutako kontraindikazio kirurgikoak murrizten dituzten kirurgiako eta anestesiako tekniketan hobekuntzak egon dira.

Informazioa hiru lurraldeetan banakatuz gero, hona hemen horien zifrak:

- **Araba:** Paziente-kopurua ia egonkor mantendu da eta batez besteko atzerapenak 2 puntu egin du hobera.
- **Gipuzkoa:** Donostialdea ESIan, Bidasoko ESIan eta Debabarreneko ESIan batez besteko atzerapena hobetu egin da. Goierriko ESIan eta Debagoiena ESIan pixka bat handitu da.
- **Bizkaia:** Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESIan, Barrualde-Galdakao ESIan eta Bilbao-Basurtu ESIan itxaron-zerrenda egonkortu egin da. Barakaldo-Sestaoko ESIan igoera txikia egon da.

Kanpo Kontsulten itxaron-zerrenda ia berdin mantendu da pazienteen guztizko kopuruan eta batez besteko atzerapena pixka bat handitu da. **(29,3 egun).**

Proba Osagarrien itxaron-zerrendaren kasuan, paziente-kopurua handitu da eta **baita batez besteko itxaron-denbora ere, gutxi bada ere, 13,1 egunera arte.**

Taula hauetan Itxaron-zerrenda kirurgikoa (IZK), Kanpo-kontsulten itxaron-zerrenda (KKIZ) eta Proba Osagarrien itxaron-zerrenda (POIZ) zehazten dira, ESIaren arabera (hiru itxaron-zerrendak), eta baita espezialitateen arabera ere, IZK bakarrik.

Kirurgiako Itxaron Zerrenda
Lista de Espera Quirúrgica
2017

Kirurgiako Itxaron Zerrenda/ Lista de Espera Quirúrgica	Paziente-kopurua/ Nº pacientes		Batez beste atzerapena/ Demora media	
	2016	2017	2016	2017
Araba ESIa	3.012	3.101	53,1	51,0
Donostialdea ESIa	3.388	3.466	49,9	49,6
Goierri-Urola Garaiko ESIa	663	671	51,9	52,6
Bidasoko ESIa	474	594	55,6	51,2
Debabarreneko ESIa	608	570	49,5	47,7
Debagoiena ESIa	444	373	41,5	43,9
Eskerr.-Enkar.-Gurutz. ESIa	2.515	2.514	40,3	40,2
Bilbao-Basurtu ESIa	2.979	2.946	54,7	54,7
Barrualde-Galdakao ESIa	2.432	2.001	51,7	51,6
Barakaldo-Sestaoko ESIa	828	812	52,1	53,1
Uribe ESIa		233		38,4
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	17.343	17.281	50,20	49,6

Kirurgiako Itxaron Zerrenda
Lista de Espera Quirúrgica
2017

Kirurgiako Itxaron Zerrenda/ Lista de Espera Quirúrgica	Paziente kopurua/ Nº pacientes		Batez best. atzerapena, egunetan/ Demora media en días	
	2016	2017	2016	2017
Kirurgia Orok./ Cirugía General	3.001	2.951	48,7	49,0
Oftalmologia	4.180	4.146	43,2	39,3
Otorrinolaringologia	1.160	1.321	52,8	51,9
Traumatologia	4.942	4.931	60,0	59,8
Urologia	1.038	1.043	42,9	44,2
Tokoginekologia	875	610	46,1	39,9
Gainerako zerbitz./ Resto de servicios	2.147	2.279	47,6	50,7
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	**17.343**	17.281	**50,2**	49,6

Osakidetza

Kontsultetako Itxaron Zerrenda
Lista de Espera Consultas
2017

Kontsultetako Itxaron Zerrenda/ Lista de Espera Consultas	Paziente kopurua/ Nº pacientes		Batez best. atzerapena, egunetan/ Demora media en días	
	2016	2017	2016	2017
Araba ESIa	15.551	16.015	28,6	26,9
Donostialdea ESIa	16.614	14.116	23,8	17,1
Goierri-Urola Garaiko ESIa	3.532	3.794	28,5	35,0
Bidasoko ESIa	2.607	2.684	23,8	25,7
Debabarreneko ESIa	2.456	3.164	12,7	24,6
Debagoiena ESIa	1.649	1.607	26,6	19,8
Ezker.-Enkar.-Gurutz. ESIa	16.607	16.809	25,3	38,9
Bilbao-Basurtu ESIa	18.707	17.882	29,0	37,4
Barrualde-Galdakao ESIa	12.036	12.864	21,5	24,6
Barakaldo-Sestaoko ESIa	5.113	4.552	27,1	28,1
Uribe ESIa		1.484		18,9
Egonaldi ertain-luzeko osp./ H. Media Larga Estancia	2.837	2.973	25,6	28,5
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	97.709	97.944	25,7	29,3

Probetarako Itxaron Zerrenda
Lista de Espera Pruebas
2017

Probetarako Itxaron Zerrenda/ Lista de Espera Pruebas	Pazientekopurua/ Nº pacientes		Batez besteko itxaron-denbora, egunetan/ Espera media en días	
	2016	2017	2016	2017
Araba ESIa	1.095	1.713	16,3	14,1
Donostialdea ESIa	1.794	2.346	8,6	7,6
Goierri-Urola Garaiko ESIa	481	317	6,8	10,0
Bidasoko ESIa	453	385	9,9	10,0
Debabarreneko ESIa	471	592	6,3	7,9
Debagoiena ESIa	446	441	7,5	11,4
Ezker.-Enkar.-Gurutz. ESIa	3.382	3.125	17,4	16,6
Bilbao-Basurtu ESIa	2.110	4.001	11,4	11,1
Barrualde-Galdakao ESIa	4.661	5.008	12,2	18,1
Barakaldo-Sestaoko ESIa	134	57	4,0	1,6
Uribe ESIa	0	873	0	11,6
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	15.027	18.858	12,4	13,1

EMERGENTZIETAKO JARDUERA

Emergentzietako zerbitzua beste baliabide garrantzitsu bat da herritarrari arreta sanitarioa bermatzeko, etengabeko estaldura eskaintzen diolako 24 orduz, urteko 365 egunetan, eta garraiobide egokia eskaintzen diolako pazienteak hala behar duenean.

Barne hartzen ditu herritarrek **Emergentzietako Zentro Koordinatzaileetara** egindako deiak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta **gaixoak anbulantzian premiaz garraiatzeko** baliabideen mobilizazioa ere (bizi-euskarri aurreratua eta oinarrizko bizi-euskarria) eta **premiazko asistentzia sanitarioa etxean,** bai medikuarena zein erizainarena ere.

Emergentzietan jasotako deien kopurua 409.335 izan da; hau da, ia **dei bat minuturo** urte osoan zehar. Oinarrizko bizi-euskarriko eta bizi-euskarri aurreratuko anbulantzien mobilizazioa **%4,2 handitu da. Etxean artatutako larrialdien** arreta **%2,6** handitu da. Azkenik, **helikopteroarekin** eskainitako arretak **%13,7 igo dira** 2016. urtearen aldean; guztira, 381 interbentzio, **egunean bat baino gehiago batez beste.**



Emergentziak
Emergencias
2017

Emergentziak/Emergencias	2016	2017	%
Hartutako deiak/ Llamadas recibidas	404.807	409.335	%1,1
BEA + OBE anbulantziak/ SVA + SVB ambulancias (medikalizatua edo erizaintza + oinarrizkoa/ medicalizada o enfermería + básico)	171.159	178.266	%4,2
Helikoptero medikalizatua/ Helicóptero	335	381	%13,7
Etxez etxeko mediku eta erizain mugi. kop. / Nº movil. Médicos y Enfermería a domicilio	65.434	67.155	%2,6

Osakidetza

OSAKIDETZAKO PREBENTZIO PROGRAMAK

Osakidetzak eginiko **prebentzio programek** ibilbide luzea dute eta horrek gero eta konfiantza gehiago ematen die herritarrei; izan ere, parte-hartze tasak altuak dira, eta emaitzak, egokiak.

Parte-hartzearen ehunekoak oso altuak dira, Espainiako eta Europako batez bestekoen aldean.

Bereziki nabarmendu behar ditugu:

- **Jaioberrien baheketa,** jaioberrien orpoaren proba izenarekin ezagutzen dena; jaioberrien %100i egiten zaie.

- **Down Sindromearen detekzioa** haurdunetan; **%90i egiten zaie.**

- **Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programa, %71,8**ko parte-hartzearekin. Beste leku batzuetako datuak hauek dira: Espainiako batez bestekoa %52,2; Europako batez bestekoa %49,5; Herbehereak; Frantzia %22; Belgika %50; Italia %45,7.
- Lortutako emaitzei dagokienez, 2017an, **2.228 arrisku handiko adenoma eta 237 minbizi inbaditzaile detektatu dira.**

- **Bularreko minbizia goiz detektatzeko programa, %77ko** parte-hartzearekin. Alderatzeko eskura ditugun datuak hauek dira: Espainiako batez bestekoa %70,4; Europako batez bestekoa %60,2; Finlandia %83; UK %71,5; Alemania %56,3; Frantzia %51.
- 2017an, emaitzek **617 bularreko minbizi detektatzeko** aukera eman dute.

- **Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI), %66,4ko** estaldurarekin. Espainiako batez bestekoa %48,96koa da. Haurren aho-hortzen osasuna neurtzeko erabiltzen den adierazle bat CAOD indizea da. 12 urterekin txantxarrak dituzten, ez dauden eta buxatuta dauden hortz-piezen kopurua neurtzen du. Indizea zenbat eta txikiagoa izan, hobea da haurren aho-hortzen osasuna. Taulan ikus dezakegunez, gure CAOD indizea **Europako herrialde onenen mailan dago**. Euskadik 1988an abiarazi zuen programa hau eta orduan euskal haurren %82k txantxarra zuen; egun, datu hori %26koa da. **Hots, 4 euskal umetatik 3k ez du txantxarrik.**

Baheketako populazio-programak
Programas poblacionales de cribado
2017

	Parte-hartzea/ Participación
Jaio aurreko baheketa-programa (Orpoiaren proba)/ Cribado neonatal (Prueba del talón)	%100
Down sindromea/ Síndrome de Down	%90
Bularreko Minbizia Goiz D. P./ Detec. Precoz Cáncer de mama	%77
PADI Haurren Hortzak Zaintzeko Programa/ PADI Programa Asistencia Dental Infantil	%66,4
Kolon-ondesteko baheketa/ Cribado Cáncer de Colon	%71,8

Osakidetza

PADI Haurren Hortzak Zaintzeko Programa
PADI Programa Dental Infantil
2017

	Euskadi	Espainia	Danimarka	Alemania	Suedia	U.K.	Frantzia	Portugal	Italia
CAOD indizea 12 urterekin/ Índice CAOD a los 12 años	0,52	0,71	0,4	0,5	0,8	0,8	1,2	1,2	1,2

CAOD indizea: 12 urteko haur bakoitzeko hortz-kopurua (txantxarrarekin, ez daudenak eta buxatutakoak). Geroz eta txikiagoa izan CAOD indizea, orduan eta aho eta hortz osasuntsuagoak. /
Índice CAOD: mide el número de dientes (careados, ausentes y obturados) por niño, a la edad de 12 años. Cuanto más bajo es el índice CAOD mayor salud bucodental.

TRANSPLANTEEN PROGRAMA

Transplanteen Programari dagokionez, nabarmendu behar da Euskadiko **organo-emate tasa** (giltzurruna, gibela, bihotza, birikak…) milioi bat biztanleko 70,3 emailekoa dela (m.b.b. tasa), Espainiako batez bestekoa baino altuagoa (m.b.b. 46,9) eta altuenetarikoa munduan.

Giltzurruneko transplantearen tasa Euskadin 81,3koa da; Espainian, aldiz, 70,2koa. Hauek dira beste herrialdeetako datu batzuk (2016. urtea): Frantzia 55; UK 51,1; USA 61,3; Eskandinavia 44,8.

Euskadin hezur-muineko emaileak %38 handitu dira, 2016. urtearekin alderatuta.

Azken urteetan martxan jarri den **asistolian organoak emateko** programari dagozkion **emaileak %29,2 dira, organo-emaile guztietatik.**

Ibilbide honekin jarraituz gero, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Estatuan giltzurrun-transplante gehien egiten dituen Ospitalea izatera irits daiteke, modalitate horretako 178 transplante egin dituelako.



Transplanteen Programa
Programa Trasplantes
2017

Transplanteen programa/ Programa Trasplantes	Kopurua/ Número	m.b.b. tasa/ Tasa p.m.p. Euskadi	m.b.b. tasa/ Tasa p.m.p. Espainia
Organo emaileak (Giltzurruna, Gibela...)/ Donantes de órganos (Riñón, Hígado...)	154	70,3	46,9
Giltzurrunetako T./ Trasplante Renal	178	81,3	70,2
Gibeleko T./ Trasplante Hepático	75	34,2	26,8
Hezur-muin emaileak/ Donantes médula ósea	2.077	948	1.029
Ehun-emaileak (korneak, ehun osteotendinosoa, azala)/ Donantes tejidos (córneas, tej. osteotendinoso, piel)	174	193	154

- m.b.b. tasa → milioi biztanle bakoitzeko tasa/ Tasa p.m.p → Tasa por millón de población

OSAREAN: OSAKIDETZA EZ PRESENTZIALA

Herritarren irisgarritasuna hobetzen duten komunikazioko eta arreta sanitarioko kanal berriek aurrera egiten jarraitzen dute; horien artean, **Osasun Aholkuaren, Web Zitaren, Pazienteen Telemonitorizazioko Programen eta Osasun Karpetaren** jarduera nabarmendu behar ditugu.

Osakidetzaren Osasun Aholkua

Osasun Aholkua, aurten, **%2,32** handitu da jasotako dei-kopuruari dagokionez (**173.047**), eta **paziente kronikoen** jarraipena aipatzeko modukoa da, **%49,51ko igoerarekin.** Aldi berean, Osasun Aholkuko erizainek **ebatzitako deien** tasa altua mantendu egin da; datua: dei guztien **%80.**

Osasun Aholkua **urteko 365 egunetako 24 ordutan funtzionatzen duen erizain-talde bat da,** programetan dauden pazienteen **arretaren jarraitutasuna** bermatzen duena. Horiek modu programatuan artatzen dituzte. Gainera, bere ekimenez deitzen duten pertsonen zalantzak eta osasun-arazoak argitzen dituzte.

Aholkutik artatzen diren programak hauek dira:

- Aringarrietako pazienteen jarraipena etxean.
- BetiON telealarma: programa soziosanitarioa.
- Kirurgia Handi Anbulatorioko pazienteen jarraipena.
- Tabakoaren Mendekotasuna gainditzeko laguntza.
- Praktika Aurreratuko Erizaintzarako (PAE) laguntzea.
- Etxeko ospitalizaziorako laguntzea.
- Etxean telemonitorizatuta dauden pazienteen jarraipena: TeleBGBK, Tele Bihotz-gutxiegitasuna, Tele Pluripatologikoak, Tele TAO Egoitzak.
- Ospitaleko Altako pazienteen jarraipena,
- ICHOM-Bizi kalitatea IKTUSA eta Prostatako Minbizia Programako pazienteen jarraipena.
- Osasun-zentroari jakinaraztea bere funtzionamendu-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan egondako heriotzak.

Osasun Aholkua/ Consejo Sanitario	2016	2017	%
Hartutako deiak/ Llamadas recibidas	169.123	173.047	%2,32
Erizaintzak ebatzitako deien %/ % Resueltas enfermería	%80	%80	Mantentzen da/ Se mantiene
Paziente kronikoen jarraipena/ Seguimiento crónicos	61.149	91.362	%49,51

Osasun Aholkua
Consejo Sanitario

OSASUN AHOLKUA: ARRETA PROGRAMAK/ CONSEJO SANITARIO: PROGRAMAS DE ATENCIÓN	2017
Aringarrietako pazienteen jarraipena etxean/ Seguimiento de Pacientes Paliativos en domicilio	59.838
Kirurgia Handi Anbulatorioko pazienteen jarraipena/ Seguimiento de los pacientes de Cirugía Mayor Ambulatoria	421
T. Mendekotasuna gainditzen laguntzea/ Apoyo a la Deshabituación Tabáquica	506
Praktika Aurreratuko Erizaintzarako laguntza/ Apoyo a las Enfermeras de Práctica Avanzada	3.036
Etxeko Ospitalizaziorako laguntza/ Apoyo a la Hospitalización a Domicilio	342
ICHOM- Bizi kalitatea IKTUSA eta Prostatako Min. Programako pazienteen jarraipena/ Seguimiento de pacientes Programa ICHOM- Calidad de Vida ICTUS y Ca. Próstata	304
BETI-ON Tele-alarma	35.183

Pazienteei etxean telemonitorizazioa egiteko programak

Pazienteen telemonitorizazioa ez da berez espezialitate mediko bat, baizik eta ezaugarri jakin batzuk dituzten pazienteei osasun-arreta emateko era berria, aurretik zeuden arreta motei gehitu zaiena.

Gaur egun, **Osakidetzan 9.737 paziente daude** (2017 bukaerako datua) honako **Telemonitorizazio programa** hauetan**:**

- Desfibrilagailuak (DAI), markagailuak edo/eta Holter-a daramatzaten pazienteen telemonitorizazioa.
- Bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteen telemonitorizazioa.
- Bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteen telemonitorizazioa ospitaleko altatik 72 ordura.
- Biriketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoa (BGBK) duten pazienteen telemonitorizazioa.
- Paziente pluripatologikoen telemonitorizazioa.
- TAO Ahozko Antikoagulazio Tratamenduan dauden pazienteen telemonitorizazioa. Eta beste bi azpiprograma hauetan: Adinekoen egoitzak eta Autokontrola etxean.

Pazienteei jarraipena egiteko modu berria da azken hori, gaixotasun kronikoa dutenak behar bezala kontrolatuta eduki ahal izateko bere etxean. modu horretan, zainketen jarraitutasunaren helburua sendotu egiten da.

TELEMONITORIZAZIOA	2017
Tele –BGBK/Tele-EPOC	275
Tele-Bihotz-gutxiegitasuna/ Tele-Insuficiencia Cardíaca	194
Tele pluripatologikoak/ Tele-Pluripatológico	226
Tele-IC 72h	1115
Tele-TAO	573
Markagailuak , Desfibrilagailuak eta Holter/ Marcapasos , Desfibriladores y Holter	7354
GUZTIRA/ TOTAL	9.737

Osakidetzako Web Zita

Osakidetzako Web zitak gora egin du etengabean eta 2017an, guztira, 1.996.554 **hitzordu digital** eskatu dira; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, **%10 igo** da.

Web zita zerbitzura ordenagailu batetik zein beste edozein gailu mugikorretik (Tableta edo Telefonoa) sar daiteke, **Osakidetzaren Atari Mugikorra app** berritik zuzenean. Lehen mailako arretako kontsulten aurretiko zita eska daiteke zerbitzu horretatik: familia-medikua, pediatra, erizaina edo emagina.

	2016	2017	%
Web Zita Cita Web	1.814.301	1.996.554	10,05

Osasun Karpeta

Teknologia berrien alorrean beste aurrerapauso bat dakarren tresna da, gero eta gehiago erabiltzen dena. Horri esker, 2017 urtean ia-ia bikoiztu egin da aurreko urtean izandako sarrera kopurua; guztira, **396.642 sarrera erregistratu dira Osasun Karpetan 2017an.** Sartu diren pertsona desberdinen kopurua 21.336koa izan zen iaz, 2016an, eta 2017an, aldiz, 40.239.

Osakidetzaren Osasun Karpeta online plataforma da, **Osakidetzak bere paziente eta/edo erabiltzaileekin harremanetan egoteko** erabiltzen duen tresna. 24 orduz dago eskuragarri, munduko edozein tokitan, ordenagailuaren, Tabletaren zein Smartphonearen bidez.

2017an hainbat funtzionalitate gehitu dizkiogu plataformari, eta orain aukera daukate **gurasoek 16 urtetik beherako seme-alaben osasun-arloko informazioa eskuratzeko bertatik, eta gurasoek ez ezik, baita bere kargura heldu bat edo tutoretzapean norbait daukatenek ere**.

2017 urtean abian jarri da **Jaioberrien Osasun Karpetara sartzeko programa**. Dagoeneko martxan da amaetxea duten Osakidetzako ospitaleetan. Hortaz, jaioberriei alta ematean, gurasoei haurren Osasun Karpetan sartzeko gakoak eskaintzen zaizkie. Egiten zaizkien proba guztien emaitzak, txertoen egutegia, eta enparauak bertan erregistratuta geratuko dira eta uneoro egongo dira eskuragarri.
Gaur egun, Karpetarako sarbide hau Osakidetzako ospitaleetan jaio berri diren haur guztien familiei eskaintzen zaie. Osasun-zentroetan ere eska daiteke.

Osasun Karpetarekin zerikusi handia dute **Smartphoneetarako sortutako app berriak**, kasurako, **Nire tratamendua/Mi tratamiento**, etxean medikamentuak behar bezala hartzen laguntzen duen tresna, eta **Ospitalez kanpoko bihotz-geldialdietan arreta emateko app-a**. Une honetan beste hainbat app berri sortzeko lanean ari gara; laster egongo dira eskuragarri.

Osasun-karpeta/ Carpeta de Salud	2016	2017	%
Sarrerak/ Accesos	200.832	396.642	97

Gasteizen, 2018ko urtarrilaren 31ean